

KONTSUMISMO BASATIARI STOP!!

Asfaltoa inposatzen diguten mundu honetan, irudimenaren bidez sorturiko aisialdi alternatiboak desagertarazi nahi duten honetan, sukaldeko robot berririk gabe bizi ezin dugula sinistarazten diguten honetan, Gabonak heltzean play station delakoarengatik borrokatzea helburu nagusi duten gurasoak gehiengo diren honetan... ez da zaila zerbait txarto doala ondorioztatzea.

Ez da erraza hainbeste argiren, soberan geratuko den janari mordoaren eta inoiz erabiliak izango ez diren jostailu guztien artean jai hauen jatorrizko balioak antzematea. Kristautasuna baino lehen data hauetan ne-

guko solstizioa zen ospatzen zena, suaren indarrak dena bete eta beste aukera bat ematen genion itxaropenari, norbere buruaren hobekuntzari, askatasun nahiari, utopiari... elkaltarsun



garaia, etxera itzultzeko garaia beharko luke izan hau eta horren ordean Gabon paradoxikoak ditugu berriro ere: kontsumismo basatiaren eta kapital gizagabearen agerraldi gordinenaren ostean limosna lizunak

bidaltzen dira tele cincoko gela horietara kontzientzia garbitzeko edo.

Nahikoa da! Bazter ditzagun kapitalak inposaturiko joera konpulsiboak! Olen-tzero etor dadila, su garretan itxaropena berpiztera. Ez al da hori gure herriko umeei egin diezaiekegun oparirik onena?

Ikatza denontzat!
Zorionak eta urte berri off!

Asamblea de Joves de Sants (Santseko Gazte Asanblada)

Coordinadora d'Asemblees de Joves de l'Esquerra Independentista-CAJEI

Pikotxa trapagararen zabaltzen den boletin kritiko eta partehartzaile bat da, bertan parte hartu nahi duenak bere aportazioa helbide elektronikora bidaltzea besterik ez du, iritzi bat, edozein informazio, data aipagarriren bat, argazkia, poesia...



PIKOTXA

2. alea

2006 abendua

OUR SYSTEM



And They call it FREEDOM

rrotza, Bartzelona inguruko Sants-eko gazte asanbladaren eskutik.

Esan beharrik ez dago pozarren jaso dugula Bartzelonako kideen kolaborazioa eta beste erakunde, talde, elkarte zein edozein eragilerenak ere gustora jasoko ditugula, hilabete honetan gure herriko amnistiaren aldeko mugimenduarena jaso dugun bezala.

Besteak beste dakizuela gure posta elektronikokoak jaso dituela zuen lehenengo mezu ta argazkiak eta aukera ere badaukazuela Pikotxa zuen meiletan jasotzeko, horretarako mezu bat bidali aukera horretaz baliatu nahi duzuela esanez ta listo.



Joño joño, kostata baina lortu dugu bigarren ale hau zuen eskutara helaraztea, hainbat malaostia ta gero hor doazkizue erraietatik atera eta burmuinetik iragazten ditugun itxaropen, amorru eta zera guztiak.


Ze berri orduan, ba bat baino gehiago.

Pasa den hilabeteko **herri kirol desafio eta bertso afari arrakastatsutik** hasi, **Amnistiaren aldeko urte** bukaerako ostiral eta larunbatarekin jarraitu (**Abenduaren 30ean mania eta afaria poesia saioarekin**)

eta **Gaztetxeak antolaturiko urte zahar eguneko kalejira eta jaiarekin** bukatuko ditugu deialdi nabarmenenak.

Baina beste gauza batzuk ere izango ditugu hizpide zenbaki honetan, hala nola **Trapagararen gazte egun bat** antolatzeko asmoa edota data hauetan ematen den **kontsumismo basatiarekiko ardura eta kritika zo-**

Ondo segi ta...
Urte berri Off



AURKIBIDEA

- Aurkezpena.....1
- Agenda.....2
- Trapagarango gazteria zorionak eta aurrera.....3
- Amnistiaren aldeko eguna, presoak etxera dagozkien eskubideen jabe.....4,5
- Urte zahar jai.....5
- Gazte eguna.....6
- Argazkiak.....7
- Kontsumismoari STOP.....8

PIKOTXA

pikotxa@gaztesarea.net

Basetxe Gaztetxea
Salcedillo Estarta 12 bis
48510 Trapagaran

ABENDUA 2006

Astl	Astr	Astz	Ostg	Ostr	Lrnbt	Ignd
				1 Dantza tailerra	2	3
4 Gazte asanblada	5 Perkusio tailerra	6 Txalaparta tailerra	7	8 Dantza tailerra	9	10 Gazte eguna Antlk. bilera
11 Gazte asanblada	12 Perkusio tailerra	13 Txalaparta tailerra	14	15 Dantza tailerra	16	17
18 Gazte asanblada	19 Perkusio tailerra	20 Txalaparta tailerra	21	22 Dantza tailerra	23 Gazte eguna Antlk. bilera	24
25 Gazte asanblada	26 Perkusio tailerra	27 Txalaparta tailerra	28	29 Dantza tailerra	30 Amnistiaren aldeko eguna	31 Gabon zahar jaia

TAILER ETA GAZTE ASANBLADA

- **Gazte asanblada:** Astelehenero 20:00 etan gaztetxean biltzen da.



- **Perkusio tailerra:** Asteartero 20:00 etan gaztetxean Tutupa perkusio afrikar taldearen eskutik.


- **Txalaparta tailerra:** Asteazkenero 19:00 etan gaztetxean Ezpala txalaparta tailerraren eskutik.



- **Euskal Dantza tailerra:** Ostiralero 18:30 etan gaztetxean.

Tailer guztiak autogestionatuak eta doakoak dira. Gehien estimatzen duguna zuen partehartze aktiboa da, beraz animatu eta parte hartu gustoko duzun tailerrean. Edozein informaziorako gaztetxera igo eta tailerra den egun eta orduan bertan aurkeztea besterik ez daukazu.

HILABETE HONTAKO ARGAZKIAK



ABENDUAK 30, AMNISTIAREN ALDEKO EGUNA TRAPAGARANEN

Amnistia hitza sarri erabiltzen da egunerokotasunean. Manietan, egunkari zein karteletan eta beste hainbat egoeratan, batzuek esango dute ezinezkoa dela gaur egun, beste hainbatek izan genuela bat 1977 urtean eta badira ere xantaia politikorako erabiltzeko prest daudenak gure senide eta lagun euskal preso politikoen kolektiboak guretzat duen garrantziaz jabetuz.

Guk ostera hainbat urteetako gatazka politikoa konpontzeko bide bakar bezala dakusagu.

Doazela pikutara euren trikimailu politiko eta sasiprozesuek ez gaituzte itsutuko eta argi izan ditzaztela printzipio hauek:

- Presoak bakearen truke printzipioa ez du baliorik guretzako eta xantaia politikorearen beste adierazpide bat besterik ez da.
- Sobera eskarmentu dugu eta ulertzen dugu amnistia eta autodeterminazio eskubidea ezin direla bereizi, 1977ko amnistiaren kontzeptua indultu bezala ulertzen dugu, indultu hartatik gutxira preso politikoa gartzeletan zeuden berriro eta 30 urte geroago estatu-etako gartzeletan ia 650 euskal preso daude.
- Gure aldarrikapena autodeterminazioa eta amnistia Euskal Herriarentzat.
- Amnistia osoa izan behar du, askata-

sunak presoontzat, erbestera eta errepresaliatu guztiontzat. Baina, oroz gainetik, askatasun osoa Herriarentzat, izan ere, Euskal Herria baita gaitu dagoena. Errepresaliatuon etxeratzeara prozesu demokratikoan egin beharreko urrats bat baino ez da.

- Ezinbesteko urratsa da, baina inola ere ez da izanen gatazkaren amaiera edo gatazkaren konponbidea. Euskal Herriak autodeterminazioa eta amnistia osoa behar ditu.

Amnistiaren helburua lortu ahal izateko pausu ezberdinak ematen jarraitu behar dugu. Gizarte osoaren eta eragile ezberdinen inplikazioa ezinbestekoa da, eta momentu honetan eman behar diren pausoei dagokienez hona apuntetxo batzuk:

- **Gaixo larriak kalera orain!!**
Gartzeletan presoek osasun asistentzia eza pairatzen dute honek dituen ondorioekin, gogora dezagun bestela Roberto Sainz "Baru"ren kasua, bihotzeko gaitzak jota hil zena bere kardio-patía aerofagia bezala tratatzen zen bitartean. Bestalde gaixotasun larri eta sendaezinak dituztenak xantairako erabiltzen dituzte damutzea bilatuz, helburu politikoak lortzeko sufrimendua areagotuz. Hau onartezina da, egun 6 pres ditugu gaixotasun sendaezin eta larriekin (Jon Agirre, Bautista Barandalla...)

eta euren baldintzarik gabeko askapen berehalakoa exijitzen dugu.

- **Kondena beteak dutenak kalera orain!!**
Espainiar eta Frantziar estatuek epaitegi zentralizatuak (Auzitegi nazionala eta Pariseko auzitegi zentrala) eta lege aldaketak burutu dituzte (1996ko eta 2003ko zigor kodeak, Parot doktrina...) presoan zigorrak luzatu eta eskubide urraketa berriak burutzeko.

Hala ere zigor kode zaharrarekin epaitutakoei ezin zikieten 40 urteko kondena inposatu ezta 3/4 edo 2/3 nak ezeztatu beraz bizi osorako zigortzeko neurri berriak hartu zituzten: jarduerak denboraldi ezberdinetan banatu zigorrak bikoizteko, espetxe zigorra bete eta kaleratu ondoren espetxeratu aurretiko sumario berriak ireki, aspaldiko ekintzak kode penal berriarekin epaitu nahi izana aurretiko sumario berriak ireki, aspaldiko

ekintzak kode penal berriarekin epaitu nahi izana, erredentzioen aplikapena indargabetu, asmakizun juridiko berriak egin... Kasu hauen adierazle ditugu adib. Iñaki de Juana edo Ortue-llako Patxi.

- **Estatu politikoa orain!!**
Estatua da presoan eskubide politikoa eta giza eskubideak bermatuko ditue-na. Egund gartzeletan euskal presoak bizi baldintza tamalgarriak pairatzen dituzte eta zigor izugarriak jasan ere, estatuek beren gartzeletan preso politikorik ez dagoela esaten duten bitartean euren eskubideak behin eta berriro urratzen dituzte (osasun esk., komunikazio esk., hizkuntza esk., hezkuntza esk., tratu duinerako esk., antolatze esk.,...) aski da!!
- **GUZTI HONEGATIK ABENDUAREN 29AN AZKEN OSTIRALA 20:00ETAN, 30 EAN MANIA UDALETXETIK ETA EKITALDIA 20:00ETAN ETA 22:00 ETAN GAZTETXEAN AFARIA ETA POESIA SAIOA. EKIN BORROKARI, ZATOZI!!**

URTEZAHAR EGUNA: *Gaztetxeak nite berri on*

Urtezahar eguna; aurreko urteko oroitzapen goxoak gordetzeko eta momentu zailen gainean hausnartzeko ordua. Akatsetatik ikasi eta etorkizunari itxaropentsu so egiteko garaia...

...Eta Trapagarango gaztetxean; festa giro jator, goxo eta euskaldunean igarotzeko aukera!! Hauxe da gaztetxeak luzatzen duen proposamena:

-Arratsaldeko 18:00etatik 21:00ak bitarte **kalejira zaratsua** (txalaparta, perkusio, trikitixa, dantzak...) Maite tabernatik hasita.

-Iluntzeko 01:00etatik aurrera **gaztetxea irekita**, karaoke, txalaparta, musika jatorra...

ANIMATU eta PASA HADI!!

URTE BERRI ON TRAPAGARAN!!

GAZTE EGUN BAT TRAPAGARANEN. ZERGATIK EZ?

Hauxe da Trapagarango gaztetxeko gazteek geure gain hartu dugun erronka. Azken garaiotan gaztetxearen inguruan sortu den indar metaketa ikusirik eta bertako gazteriaren antolakuntza txukunaz jabeturik, herri mailan oihartzuna izango duen ekimen zabal bat martxan jartzea erabaki dugu, **TRAPAGARANGO GAZTE EGUNA** alegia.

Zer da GAZTE EGUNA?

Gazte eguna herriko gazteriaren bilgune izan asmoz muntaturiko festa eguna izango da. Amesten dugun Trapagaran irudikatuko duen eguna. Hau da, gazteok gazteontzat muntaturiko festa alternatiboa.

Zeintzuk dira bere HELBURUAK?

Herriko **gazteriaren bilgune** izatea.

Herrian den **gazte dinamika oro** egun horretan Trapagarango **kaleetan agerraraztea**.

Herriko **gazteria antolatu eta** jai honen antolakuntzari begira **mugiaraztea**.

Gazteriaren partehartzea bultzatzea; **jai partehartzaileen dinamika bultzatzea**.

Herriko gazte gehienak euskaldun izanik, **jai euskaldun eta herrikoien eredu izatea**.

Ekimena diruz **autogestionatzea**, horrela udal eta gainontzeko instituzioekiko menpekotasuna saihestuko dugu eta eguna antolatzeko geure askatasun finantzieroa segurtatu.

Urtero errepikatuko den **ekimen iraunkorra** sortzea.

Beraz proiektu berria jada martxan da baina dudarik gabe amets berri hau errealitate bilakatzeko danon partehartzea beharrezkoa izango da. Horretarako bi aste behin, igandetan arratsaldeko 17:00tan biltzar dinamika jarri dugu martxan proiektua zehaztu, landu eta gauzatzeko. Egitasmoa zuen ideiei irekia da, beraz:

HURRENGO BILERAK : Trapagarango Basetxe gaztetxean
Abenduak 10 arratsaldeko 17:00tan
Abenduak 23 arratsaldeko 17:00tan

ANIMATU ETA GERTURA HADI!!!
GAZTE HAIKA HADI TRAPAGARAN BIZIAREN ALDE!
MUGITZEN DEN HERRIAREN ALDE!!

TRAPAGARANGO GAZTERIA: ZORIONAK ETA AURRERA!!

Iragan hilabetearen Areatzako gazteriaren aurka herri kirol desafioa jolastu genuen Trapagaranen, ostean kalejira eta bertso afaria izan ziren gaztetxean. Ekitaldi hau antolatzeko orduan dudarik gabe eredugarria izan da gazteria euskaldunak erakutsitako antolakuntza eta buruturiko lana. **ZORIONAK TRAPAGARAN!** (Eskerrik asko sukaldeko ekipoa, muntaiaren ibilitakoak, elektrizitatea, bideoa egin zenutenak, Areatzako gazteria, musika, bertsolariak...)

Horrek erakusten digu ekinez posible dela ametsa errealitate bihurtzea. Horretan ari gara eta bidea nekeza




bada ere,

pausoz pauso, urratsez

urrats, lortuko dugu mendebaldeko euskal basamortuan eraikitzen ari garen oasi txiki hau itsaso urdin eta bizi bilakatzeko.

Orain arte pentsatu ezina zen



Larunbatean ikusitakoa. Desafioan zein kalejiran bildu zen jende kopurua esanguratsua izan zen eta nabarmentzekoa da bertaratutako artean sorturiko giro jator eta euskalduna. Izan ere, jakina da gure herria ez dela batere euskalduna baina larunbatean zuen ahalegin eta izerdiaz amets bat bizi izan genuen: TRAPAGARAN EUSKALDUNA.

Larunbatean herri kiroletan Areatzak irabazi gintuen baina errealiki Trapagaranek irabazi zuen, ez baitago geure herriko gazteria geldituko duen indarririk. Gu hurrengo apustu etarako prest gara. Eta zeu?

Biharko Trapagaran euskaldunaren bidean, Euskal Herri batu eta askean.

“Otsoko”